

Bilbon, 2020ko apirilaren 22an.

Bizkaiko Ahaldun Nagusi jn.:

Bizkaiko Adinekoen Kontseiluak osoko bilkura telematikoa egin du gaur, eta adinekoen konfinamendu jarraitua eta hurbil dagoen pandemiaren arintze-fasea direla-eta kide guztiok dugun kezka helarazi nahi dizugu.

Gure gizarte-zerbitzuen ikuspegi etiko eta teknikoarekin koherente izanda, pertsonen narriadura bio-psikosoziala artatzea bezain garrantzitsua da narriadura horren agerpen eta garapenari aurrea hartzea. Adinekoei arreta ematean, foru-erakundeen lehentasunetako bat da haien autonomia pertsonala sustatzea mendekotasun-egoerak saihesteko eta bizikalitatea eskaintzeko: kontua ez da bizitzari urteak gehitzea soilik, urteei bizitza gehitzea baizik.

Konfinamendu jarraitua adinekoengan eragiten ari den narriadura bio-psikosoziala larria da, nekez konpontzekoa edo konponezina. Kasu batzuetan, gainera, azkartu egin ditu mendekotasun-prozesuak. Adineko hauek izan duten gaitasun-galerak ez du itzulbiderik.

Kezkatuta gaude balitekeelako arintze-prozesu horretan errealtate hori kontuan ez hartzea eta, adinekoen kasuan, konfinamendua luzatzeko neurriak hartzea, konfinamendua arintzeko neurriak hartu ordez: adinekoentzat, kalera joatea ez da kirol-jarduera bat edo ondo pasatzeko jarduera bat, ahalmen motorrak zaintzeko jarduera baizik, are gehiago murriztuta egon daitezkeenean. Adibide bat baino ez da.

Ahaldun Nagusi jauna, mesedez eskatzen dizugu gogoeta hauek defendatzeko Lehendakariaren aurrean, zure babesarekin eta Lehendakariaren uste sendoarekin, honek adinekoen konfinamendua arintzeko neurriak proposatu, eskatu edo galdegin ditzan, betiere pandemiari aurre egiteko osasun-baldintzak bermatuta.

Adeitasunez, agur. Kontseiluaren izenean

Sr. Diputado General de Bizkaia:

El Consejo de Personas Mayores de Bizkaia, reunido hoy telemáticamente en Pleno, quiere trasladarle una preocupación compartida por todos sus miembros, relativa a la situación de confinamiento mantenido de las personas mayores y ante la fase que se avecina de desescalamiento de la pandemia.

Coherente con el propio enfoque ético y técnico de nuestros servicios sociales, tan importante como atender el deterioro bio-psicosocial de las personas, es prevenir su aparición y desarrollo. Una de las prioridades de las instituciones forales en la atención a las personas mayores, es la promoción de su autonomía personal para evitar situaciones de dependencia y ofrecer calidad de vida: no solo añadir años a la vida, sino vida a los años.

Los deterioros bio-psicosociales que el confinamiento prolongado está produciendo en las personas mayores, están siendo graves y difícilmente reversibles o simplemente irreversibles, acelerando incluso procesos de dependencia. La pérdida de capacidades de esas personas mayores no tendrá retorno.

Nos preocupa que en el proceso de desescalamiento se pase por alto esta realidad, y se adopten medidas de alargamiento del confinamiento para las personas mayores, en vez de medidas de atenuación: pisar la calle y andar en el caso de los mayores no es disciplina deportiva ni lúdica, sino salvaguarda de sus facultades motoras, quizá mermadas. Como ejemplo.

Le rogamos, Sr. Diputado general haga valer ante el Sr. Lehendakari estas consideraciones, de forma que, con su apoyo y la convicción del Sr. Lehendakari, este proponga, demande o exija medidas de atenuación del confinamiento para las personas mayores, sin menoscabo de las condiciones sanitarias que requiere la lucha contra la pandemia.

Le enviamos un afectuoso saludo. En nombre del Consejo